


Noaia !!



Arkoten ari da aurten
Iñaki Errasti arraunlaria



Badatoz Santixabelak

Candido Besa

Arabar Errioxako
Urteko ardoa



alkartasuna Elkarte
Baserritar Kooperatiba
alkartasuna@usurbil.com
Ugarte industrialdea 12
943 361 114

Auto Guria



Auto Konponketa

Pre I.T.V

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
943 363 298 • Faxe: 943 363 862

Rafa

iturgindegia



astelehenetik ostiralera:
10h30-13h30 / 16h30- 19h30
larunbatetan:
10h00- 13h00

Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04

Badok Amairu !!

Ixak Arruti: "Gizakiak planeta txikitzeari diot beldurra"

Izen abizenak: Ixak Arruti.

Adina: 21 urte.

Helbidea: Kaxkoa.

Lanbidea: ikaslea.

1. Jakirik gogokoena.

Arrautza frijituak, patata frijituekin eta txorixo egosia.

2. Ohitura txarren bat.

Berandu oheratzea.

3. Zer gordetzen duzu sakelan?

Musuzapia eta metxeroa. Gainerakoa, "riñorenan".

4. Zertan berpiztuko zinateke?

Gizakia ez den beste edozertan.

5. Zeri diozu beldurra?

Gizakiak planeta txikitzeari.

6. Miresten duzun pertsona.

Euskaraz jakin gabe, euskara ikasteko saiakera egiten dutenak.

7. Ezin zaitezke bizi...

Musika gabe.

8. Egindako erokeria handiena.

Oraindik erokeria handiena egiteke dut.

9. Liburu bat.

Egunkaria.

10. Film bat.

Ace Ventura: Operación África.



11. Leku bat.

Eskozia.

12. Herriko lekurik ederrena.

Dema plaza.

13. Urtaro bat.

Udaberria.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurerako ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

SAN JOANAK, IRUDITAN _____ **5. OR.**

IN SITU MUSIKA TALDEA _____ **6. OR.**

EDALONTZI ERABILGARRIAK JAIETAN _____ **8. OR.**

OFIZIO BAT IKASTEKO AUKERA _____ **9. OR.**

IÑAKI ERRASTI ARRAUNLARIA _____ **12. OR.**

EL SALVADORREN ALDE _____ **13. OR.**

DENBORAPASAK _____ **14. OR.**




Usurbilgo Udaia



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UNAI AGIRRE

Badugu lana aurretik

San Juan gaua joan zaigu, udako solstizioa. Zubietako plazan ere su ederra piztu zuten, egur nahikoa pila-tuta. Edonon ikus zitezkeen su txikiagoak ere, baserri bakoitzaren aitzinean. Baina usadioak dio iraganeko kontuak erretzeko izan behar duela, errepika ez daitezen. Eta Zubietan bagenuen zer erre.

Hilabete hasieran Herri Batzarra berria osatu genuen, biren esperientziarekin (Imanol eta Joxemi) eta beste hiruren freskotasanarekin (Eñaut -alkate berria-, Karmele eta ni neu.). Hurrengo hauteskunderako neska zein andre gehiago lortu beharko ditugu!

Bada, gaiari helduta, Usurbilen aurreko udal gobernuak izandako elkarlanerako gogo eza, diruen blokeoak eta prepotentzia bota nituen sutara. Badirudi udalberriak lore berriak ekarri dizkigula, ea elkarlanean zubietarontzako Zubietan bat lantzen dugun.

Batzarra osatu eta lehen hitzordua Donostiako Alkatearekin izan genuen. Hitz ederrak ezpainetan, txokolatina mahaian, baina asmo krudelak buruan. Zubietarontzat Zubietaz hitz egiten genionean, berak baietz, baina Donostia osorako gaiak berari zegoziola, ez

zeudela gure esku. Hor bota zituen Erraustegia, Kartzela, eta disimuluan, parke teknologiko berria. Bi mila etxebizitza ere aipatu zituen. Dena txokolatinez eta hitz ederrez apainduta, berak ezin baitu ezer egin erraustegiaren kontra, kartzela ekartzea beste aukerarik ez du, etxebizitzak eraikitzeke beste tokirik ez dago... Begiratzen ez zidan une batean bere hitzak nire buruan gorde nituen, eta horiek ere sutara joan ziren. Baina zenbait gaitan ez dugu erraza, udal gobernuak gehiengo osoa izanda (ANV-EAE-k 3 zinegotzi lortu zituen, baina alderdien legeari esker PSE, PP eta PNV-k lapurtu dituzte).

Guk argi dugu Erraustegirik ez dugula nahi, Gipuzkoak ez duela behar. Alde guztietatik aurre egingo diogu, bai politikoan, bai judizialean, baina batez ere zerbaitek geldiaraziko badu munstro hau herri mobilizazioa izango da. Benetako demokrazian, herriak agindu behar du zer egin eta nola. Eta politikoei herriaren hitza errespetatu.

Badugu lana datozen lau urteetarako, esandakoez gain herriko kontu txikiak; azekiak, ur zikinen hodiak, autobusa, plazako urbanizazioa, lokal berriaren burokrazia bukatzea... Ekin lanari!

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika!

Realaren politika arrazista

Astelehenean El Correo Españolko Iñigo Gurruchaga kirol kazetariak idatzitakoaren arabera Realak atzerritarak fitxatzen hasi zen lehenengo

urteetan politika arrazista egiten zuen, espainiarrak fitxatzen ez zituelako.

Lotsagarria benetan kazetari honen jarrera. Vocento taldekoa

den El Diario Vascok zeozer esan beharko luke kazetari honen jarrerari buruz. Ez ala? Eskerrik asko,

Bea Errea

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: uztailak 6. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztailak 2.

Giro bikainean amaitu ziren Sanjoanak

Amaitu dira aurtengoak ere. Baina ederki ospatu ostean. Kalezaharko Sanjoanak joan zaizkigu, musika, dantza eta sutzarren artean.

Auzotarrek eskainitako soka-dantzak ikusle ugari erakarri zituen. Tartean, haietako batzuentzako omenaldirik ere ez zen falta izan. Hurrek ezinhobeto pasatu zuten antolatzaileek jarritako probatan. Eta zer esanik ez, piztutako suari dagokionez. Herrian eta inguruko mendietan nonahi ikus zitezkeen su garrak edota haiek botatako kea, ekainaren 23ko gauean.

Kalezaharkoak amaitu dira, baina jaien denboraldia hasi besterik ez da egin.

Maidar Makazagari esker lortu ditugu irudi hauek. Argazki gehiago noaua.com webgunean, Argazkitegia atalean: "San Joanak 2007".



SOKA-DANTZAN PARTE HARTU ZUTENAK GOIKO IRUDIAN. BEHEKOETAN, BIZITAKO JAI GIRO EDERRAREN UNE BATZUK IRUDIETAN JASDAK.



In Situ musika taldea Santixabeletan arituko da “Gure aurkezpen kontzertua izango da”

Aurtengo Santixabelek izen propio asko izango dituzte; horietako bat In Situ izango da. Etxe eta Skalariak taldeekin batera, uztailearen 6ko gauean ohol-tza gainean izango da herriko taldea. Akerra gaztetxean dagoeneko emanaldia eskaini duten arren, haien debuta herriko pilotalekukoa izango dela diote.

NOAUA! Jaietan, Skalariak eta Etxerekin batera joko duzue. Nola daramatzazue prestaketa lanak?

In Situ. Akerra gaztetxean ere jo dugu. Oso harrera beroa izan zen eta eskerrak joan ziren guztiei. Baina Usurbilen joko dugun lehen kontzertua izango da. Gure aurkezpen emanaldi ofiziala izango da. Gainera, frontoian izango da, herriko festetan. Eskenatoki baten gainean, talde potenteekin. Jendea egongo dela suposatzen dugu. Orduan, hori guztia planteatzerakoan urduritzen zara. Besteek baino gehiago inponitzen duten kontzertua izango da. Hobeto prestatu beharra dago, beraz. Urtebete daramagunez, taldea ezagutarazteko aukera oso ona izango da.

N. Emanaldian zer entzun ahal izango da?

In Situ. Gure kantak jotzen hasteko gutxi ezagutuko ditu. Bertsoak jota, jendea animatzen dela ikusten da eta kontzertuan sartzen da. Beraz, gure abestiez gain, bertsoiak izango dira. Guri lasaitzen lagunduko digute, tentsio momentuak ere izaten dira eta. Jendea begira geratzen denean.

N. Jada, kontzertuan joko dituzuen abestiak prest?



HAUEK DIRA IRUDITAN ABERTZEN DIREN TALDEKIDEAK: JOSE GARAZ (GITARRA), MIKEL INDO (BATERIA), DAVID ILLARRAMENDI (AHOTSA), MIGUEL PLAZA (GITARRA) ETA KORDAK) ETA AINARA ARNAIZ (BAXUA).

IN SITU

“Ez dira autobiografikoak gure abestiak, baina gure esperientziak, gure ingurukoenak, asko eragiten dute”

In Situ. Kanta batzuk moldatu ditugu. Hasieran prestatzen hasi ginen abestiak oinarritzat hartuta, moldatu ditugu.

N. Lehenak izango zarete jotzen?

In Situ. Orain arte, lehenik herriko taldeek jo izan dute. Gero, gainerakoek. Aurten ere, gauza bera gertatuko da ziur aski.

N. Errespetu puntua ematen al du?

In Situ. Gu jotzera goaz. Garen bezala agertuko gara. Jendeak gustu-

ko badu, hobeto. Jarraitzeko asmotan gara.

N. In situ. Esanahi bereziren bat du izenak?

In Situ. Hasiera batean, Kea izena jartzeko asmoa genuen. Baina izena hartuta zegoen. Izenak esaten hasi eta une batean “In Situ” aipatu zen.

N. Zer gai lantzen dituzue zuen abestietan?

In Situ. Munduko arazoak baina bereziki pertsonak pairatzen dituztenak. Ez dira abesti autobiografikoak, baina gure esperientziak, gure ingurukoenak, belarrira iristen direnak asko eragiten dute. Tematika bariatua da. Egitura aldetik elkarren antza dute, baina abesti guztiak ezberdinak dira. Berritzen saiatzen gara.

N. Eragin musikal konkreturik baduzue?

In Situ. Kide bakoitzak bereak ditu; S.A, Marea, euskal musika, heavya... Guztiok estilo musikal ezberdinak ditugu. Collage bat da eta kanten azken emaitzan ere hori nabari da.

N. Zein da zuen nortasun seilua?

In Situ. Hemen jotzen dugun taldeen artean, ezberdintasunak daude. Nahiko estilo definituak dituzte. Ezberdinenak gu garela uste dugu.

N. Eskolaurreko garai bateko erai-kinean zaudete. Baina ez zaudete bakarrik?

In Situ. Zortzi talde gaude. Adin tarte handiko taldeak. Polita da. Guk zortea dugu, urtebeteren ostean jotzeko aukera dugulako. Badira jotzen

denbora asko izan, eta horrelako aukerarik ez dutenak. Taldeon artean asko laguntzen gara. Asko eskertzen da.

N. Talde bat osatzen denean, hasiera horretan, zer da gehien behar izaten dena eta zer faltan botatzen dena?

In Situ. Lehenik, lokala. Instrumentuena bakoitzak ahal duen moduan jartzen baitu. Dagoenarekin gustura gaude baina kontuan hartzea da hemen talde guztiok egiten dugula lan.

N. Nolakoa da abestiak sortzeko prozesua?

In Situ. Askok alderantziz egiten badute ere, letrak ateratzen ditugu.

Gero, gitarrak musika jartzen die eta denon artean moldatu egiten ditugu.

N. Usurbilgoaren ondoren, jada beste emanaldiren bat hitzartu duzue?

In Situ. Abuztuaren 2an, San Estebango jaietan. Akerran urtero egiten diren kontzertuetan joko dugu. Herriko beste talde batzuekin. Bestalde, Atxegaldeko festak berreskuratuko diren honetan ere, joko dugu. Abuztuaren 31n. Hortik aurrera, gu beti prest, harremanetan jartzen garenean jotzeko. Hasieran, ahoz ahokoa eraginkorragoa izaten da, inork ezagutzen ez zaituenean.

ARITZ GORRITI _____

Herriko musika taldeen abestiekin CDa kaleratuko dute

Okerrik ez bada, In Situren bi abesti entzungai izango dira jai hauetan. Herriko gainerako taldeen abestiekin batera CD bat kaleratuko baita.

Garai bateko Haur Hezkuntzako eraikinean, egun, zortzi musika talde dabilta jo eta su musikagintzan. Aurtengo jaietan, EPOK, In Situ, Mendeku Itxua, Susmo, Despervicio, Paraflying, Hitzizkepe eta D3 taldeen lana ezagutzeko aukera izango da. Bakoitzak aukeratutako bi abesti onenekin CD bat osatu baitute eta salgai izango da, Kalexar

Rekors zigilupean. Grabaketa lanean, Joseba Agirresarobe aritu da, Martxel Arkarazok lagunduta. Auto ekoizpena izan da, Kalezarreko musika taldeen lokaletan bertan grabatutakoa.

In Situ taldetik aipatu dutenez, non egin den kontuan hartuta, emaitza oso ona izan da. "Kalitatea dago. Leku hobeago batean egin izan balitz, ezin esan zer nolako emaitza lortuko zen", adierazi dute. Hala, CD-a entzuten duenak oso gustura geratuko dela iragarri dute.

Gauzak iragarri bezala badoaz, Santixabel hauetan entzungai eta



HERRIKO ZORTZI MUSIKA TALDE-REN LANA CD BATEAN BILDUKO DA.

eskuragai izango da egunez egun herriko musika taldeek Kalezarreko lokaletan lantzen duten musika.

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN · ALDIZKARIA ON LINE · INKESTAK · FORDAK · POSTA

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA



Edalontzi erabilgarrian, mesedez

Usurbil Bizirik taldeak taberna eta txosnekin adostu du baso hauen erabilera

Santixabel jaiak gainean ditugu. Aurten zortzi egunetako festa izango da eta tartean ekintza ugari herritar guztiek ondo pasa eta disfrutatzeko. Dena den, bada programaz kanpo aurkeztuko diguten ekitaldi edo gonbidapenik ere. Jaietan ere, zaborra gutxitu, berrerabili eta birziklatzen jarraitzeko Usurbil Bizirik taldeak edalontzi berrerabilgarriak jarriko ditu edonoren eskuragarri.

Edalontzia eskuratzeko euro bat ordaindu behar da. Hori eginez gero, datozen zortzi egunetan eta jaiak amaitu artean, edozein taberna edo txoznatan eskatutakoa aipatutako edalontzian zerbitzatuko dute.

Erabilitakoa itzuli daiteke

Tarte horretan jaso, garbitu eta nahi bezainbestetan erabili daiteke. Santixabelak pasatakoan, edalontzia rekin zer egin zalantza duenak, nahi duenak edalontzia bera bueltatu dezake. Hori egiten duenari, jaien hasieran

ordaindutako euroa itzuliko zaio. Bestela, norberak gorde dezake beste jai batzuetarako.

Usurbil Bizirik-eko kideek aipatu bezala, hartara, plastikozko baso kopuru ikaragarria erabiltzea sahiestu daiteke. Jaietan gehien xahutzen den materialetako bat baita. Bazterrak garbiago egongo lirarteke. Eta noski, zabor kopurua ere dezente gutxituko litzateke.

Berrerabiltzeko deia

Kontuan hartu behar da, Santixabel jaiak aspaldian izan diren luzeenak izango direla. Ohi denez, jaietaz gozatzarekin batera, txoznak eta tabernak ohi baino gehiagotan beteta izango dira.

Zortzi egunetarako Usurbil Bizirik-ek jaietan ere zaborra gutxitu, berrerabili eta birziklatzeko proposamena, urtean zehar herritar bakoitzak etxetik hasita egin ohi duen saiakeraren jarraipena izatea nahi dute.

Horregatik, urtean zehar egindako esfortzuaren ostean, Usurbil Bizirik-



EURO BATEN TRUKE LORTU DAITEKE EDALONTZIA. TXOZNA ETA TABERNATAN ERABILI AHAL IZANGO DA.

eko kideek, ondo pasatzeko deia luzatzarekin batera, ekitaldiz betetako jai giroak irauten duen aste luzean ere, ekimen honetan parte hartzera deitzen ditu herritarrak. Igandetik aurrera, edalontziak eskuragai.

ARITZ GORRITI

Sardin-jatea Santixabel egunean

Uztailaren 2ko ekitaldien artean, errauste plantaren aurkako herri mugimendurekin bat egiteko aukera izango da. Sardin-jate mundiala antolatu du eta Usurbil Bizirik taldeak Santixabel egunean.

Errauste plantaren aurkako taldeak, Usurbil Bizirik taldeak, sardin-jate mundial baterako gonbidapena luzatzen dute. Beti ere, sagardoarekin lagunduta.

Modu horretan, Santixabeletan ere izango da herritar gehienei kezka eragiten dien gaiarekin bat egiteko

aukera. Erraustegiaren kontrako herri mugimenduak denbora luzea darama borroka honetan eta egiten diren ekitaldietan ere xoxa batzuk behar izaten dira gastuak ordaindu ahal izateko.

Betiko errifa, bonolaguntza eta materialen salmenta saldu beharrean, aurten, festen giro ona baliatuta, sardina eta sagardo dastaketa egiteko aukera izango da.

Dozena erdi sardina 3eur otan dastatu daiteke. Modu horretan, jasotako diruarekin errauste plantaren aurkako mugimenduan lanean jarraitzeko laguntza eman daiteke.



SANJOANETAN BEZALA, SANTIXABELETAN ERE SARDIN-JANA IZANGO DA.

Ordua: 19:00.

Lekua: frontoi eta Dema plaza inguruan.

Ofizio bat ikasteko aukera

Lanbide Hastapen Tailerretan izena emateko epea ireki berri da

Lanbide bat ikasi eta hari lotutako praktikak enpresatan. DBH-ko graduatua lortzeko laguntza. Hori eta gehiago da Lanbide Hastapena. Matrikulazio epea zabalik iraila arte.

Bi ikasturtetan antolatzen da, 16-21 urteko gazte langabetu edota graduaturik ez dutenei zuzendutako hezkuntza eskaintza hau. Lehen ikasturtean, 1.000 ordutan banatutako formazio teoriko-praktikoa jasoko luke ikasle bakoitzak. Lanbide teknologia, sozio-laboral arloa, edota aukuratutako tailerra bera lantzen dute, beste ekintza osagarriekin tartekatuta; hala nola, enpresetara egindako txangoekin edota kirol jarduerekin.

Bigarren ikasturtean, sakontze prozesua dator. Aldez aurretik ikasitakoa indartu eta lan-mundura begira jartzeko ikasgaiak jasoko dituzte. Horrekin batera, eskualdeko enpresatan praktikak egiteko aukera dute, lanbidea barnetik ezagutu eta lan-esperezia hartzeko.

Lan kontratua eskuratzeko bidea



IRUDIAN, SUKALDARITZA ETA GOZOGINTZAKO TAILERREKO IKASLEAK. HORREKIN BATERA, ILE-APAINKETA TAILERRA ERE AGERIALDEN ESKAINTZEN DA.

errazten diete, lan-eskaintza ere ugaria baita.

Garrantzi handia dute ikasle eta irakasleen arteko harremanek. Hori dela eta tutoretza eta orientabide indibidualizatua eskaintzen dute

ikasletek irauten duten artean. Baita DBH-ko graduatua lortzeko laguntza ere. Hartara, ikasleak ikasketa arautura itzuli daitezke.

ARITZ GORRITI _____

Lanbide Hastapen Ikastetxea, 2007-2008 ikasturtea

ESPEZIALITATEAK: Sukaldaritza eta gozogintza; ile-apainketa eta edergintza; margolaritza; automobilaren karrozeria; galdaragintza eta soldadura.

NORI ZUZENDUA: Usurbilgo herritarrak, 16-21 urte bitarteko gazteak, DBH graduatua ez dutenak, ikasten ari ez direnak edota langabezian daudenak.

IZENA EMATEKO EPEA: Ekaina, uztaila eta iraila.

HARREMANETARAKO
TELEFONOA: 943 36 04 65.

SUSTATZAILEAK: Eskualdeko hainbat udaletxe (tartean Usurbilgoa), Eusko Jaurlaritza, Europako Gizarte Fondoa.



Xabier Mikel Errekondo

“Hasiera honetan, lehentasunezko gaiei ari diegu heltzen”

Egoerari neurria hartu nahian dabilta Xabier Mikel Errekondo eta bere alderdikideak. Hala aurkitu dugu udaleko bulegoan alkate berria, paper artean. Santixabeletan, dena den, festarako tarterik ere hartuko dute.

NOAUA! Txori batek esan digu alkatetza hartu duzuenetik ia ez zarete la udaletxetik atera. Hala al da?

Xabier Mikel Errekondo. Bai, hala da. Mahaia txosten eta paperez beteta dago. Guretzat gai berria da eta erantzukizun handikoa.

Zentzuz erantzutea eskatzen du, eta horrek bere denbora behar du.

Hasera honetan lehentasunezko gaiei ari diegu heltzen.

N. Santixabeletan, sikiera, festaz gozatzeko tartetxo bat hartuko duzue, ezta?

X. M. E. Zalantzarik gabe. Aukera badago eta egunez zein gauzez ibiltzeko.

N. Aukeran, zein da festetatik gehien gustuko duzun ekitaldia?

X. M. E. Oilasko biltzaileen eguna asko gustatu izan zait. Normalean koadrilan ospatzen da eta egun guzti-ko jaia izaten da. Toka, boloak, pilota... Bertsoaritza ere gustatzen zait.

N. Txalo artean eskuratu zenuten alkatetza duela bi aste. Han ziren zuen etxeokak, lagunak, eta herritar ugari. Hunkitzeko modukoa, ezta?

X. M. E. Bai. Egoera berria zen, oso

berezia eta hunkigarria suertatu zitzaidan. Erronka hau hartzea erabaki eta jendeak esperantzaz hartzen duela ikustea oso lagungarria da.

Izan ere, konpromiso hori hartu dugu eta orain udalerritari eta herritarrei erantzutea dagokigu.

N. Duela urtebete, imajinatzen ez zenuen zure herriko alkate izango zinenik?

X. M. E. Ez, nola ba! Ez nuen inolaz ere imajinatzen, hurbiletik jarraitzen saiatu banaiz ere udal kudeaketa.

N. Lagunak eta ingurukoak adarra jotzen hasiko ziren dagoeneko...

X. M. E. Ilegalizatzeko arriskua zegoela eta, jakinarazpena atzeratu genuen, baina jakin bezain pronto hasi ziren txantxak lanean eta baita lagunaren artean ere.

XABIER MIKEL ERREKONDO

“Arloz arlo eskarmentu handia duen jendearen laguntza dugu. Zinegotzi taldea ere oso orekatua dago”

N. Eta kalean, hasi al zaizkizu kexuak, eskaerak eta antzekoak iristen?

X. M. E. Bai, hasi zaizkit “hirekin hitz egin behar diat” esaka. Baina denei esaten diet orri arteko itsasoan gabilta oraindik, burua altxatu ezinik



TALDE-LANEAN ARITUKO DIRELA AITORTU DIGU XABIER MIKEL ERREKONDOK.

eta denbora emateko eta izango dugula biltzeko tartea.

N. Eskubaloi jokalaria bezala, han eta hemen ibili zara, batekin eta besteekin lehian. Datozen lau “denboraldiei” aurre egiteko osatu duzuen taldea sendoa izango al da?

X. M. E. Noski. Kirolean bezala, taldearekiko konfiantza dugu argudiorik indartsuena udalgintzari begira, borondate eta gogo askoko taldea dugu.

Arloz arlo eskarmentu dezente duen jendearen laguntza ere badugu. Zinegotzi taldea ere, oso orekatua dago, bai parekidetasun aldetik bai gaika lan egiteko ere.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

LABE-GOXO



ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

ZUBIALIRENEA 4, USURBIL

ileapaindegia

mistoa

943361951

JOSUE
ARANZAZISTROKI

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea, 6 Kalea
Telf: 606 37 21 05

N. Inoiz “entrenatzaile” izateko bokaziorik izan al duzu? Kirolean, beharrezkoak izan ohi dira liderrak...

X. M. E. Entrenatzaile izateko aukera izan dut hainbatetan. Haurrekin entrenatzea oso hunkigarria izan da bai Iruñean eta baita hemen ere. Baina udaletxean entrenatzaile lan hori denen artean egingo dugu nahiz eta “entrenatzailearen” irudi hori, akaso, nirea izan.

XABIER MIKEL ERREKONDO

“Badakit une gazi-gozoek izango direla, baita asebeteko nauten uneak ere”

N. Politikan ordu asko, esker oneko hitz gutxi eta tirabira ugari. Ez dirudi oso erakargarria zuek aukeratu duzuen “kantxa”.

X. M. E. Nik uste dut Euskal Herrian ulergarriagoa dela. Inguruan

ditugun arazoak iritsi egiten zaizkigu eta sentitu egiten ditugu. Hausnarketa egiteko adina informazioa biltzen, iritzi bat osatzen eta, horren aurrean, koherentziaz jokatzeko saiatzen gara. Nik badakit une gazi-gozoek izango direla eta baita asebeteko nauten uneak ere.

N. Zure koloreko elastikoarekin ez bada ere, izango dira beste “jokalari” batzuk “kantxa” horretan. Minutuak denen artean banatuko al dituzue?

X. M. E. Udalaren kolorea emaitzen arabera izango da. Aldaketa 180ºkoa emango da, izan ere hemendik aurrera herritarroi eta alderdi guztioi informaziorik ez zaigu ezkutatu.

Baina kantxaratzen den zinegotzi orok lanerako praktika motzak jantzi beharko ditu.

N. Azkenik, “harmailetan” daudenei zer esango zenieke?

X. M. E. Sartu berriak gara eta, hasieran mantoago bada ere, helduko

diegula gai guztiei.

Santixabelak direla, Usurbilgo jai nagusiak eta bakoitzak bere moduan ongi pasatzeko jaiak direla. Agur bero bat bidaltzen diegu egon ezin dutenei, preso eta iheslariei.

Olarriondo eta Ugartondoko babes ofizialeko etxeak

N. Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketaren zain dago jende asko. Zerbait esateko moduan al zaudete?

X. M. E. Espedienteak mahai gainean daude, Olarriondoko ez dago itxita oraindik: aldeekin hitzartu beharreko flekoak geratzen dira.

Baina, lehen ere esan genuen, gaizki eginagatik zerrenda errespetatuko dugula.

IMANOL UBEDA

Hemeroteka !!

Usurbil UEMAn sartu zen 1997ko ekainaren 15ean

Usurbil Udalen Euskal Mankomunitateko kide bihurtu da. Aparteko batzaraldian, udaletxe aurrean bildu zen udal batzarra joan den ekainaren 15ean. Herri Batasunako 7 zinegotzien, Eusko Alkartasunako 2en eta Izaskun Maiz independentearen baietzarekin (EAJko zinegotziak eta PSOEkoa ez ziren aurkeztu) Usurbilgo udalak UEMAn sar-

tzea erabaki zuen UEMaren estatutuak onartu eta hitzarmena sinatu ondoren. Aurrez, UEMari adostasuna erakutsi zioten herriko 40 elkarte baino gehiagok. Hemendik aurrera, Luismari Ormaetxea (EA), Izaskun Maiz (independentea) eta Kerman Rekondo eta Xabier Pikabea (HB) zinegotziek ordezkatu dute Usurbil UEMAn.

* NOAUA! aldizkariaren 23. zenbakian jasoa, 1997ko ekainaren 27an.



teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Iñaki Errasti, Arkoteko arraunlaria

“Mailari eustea da gure helburua”

Bi aste barru hasiko da arraun denboraldia. Astillero (Kantabria) utzi eta Arkoten (Plentzia, Bizkaia) arituko da aurten Iñaki Errasti. Aurreko larunbatean Mundakan egin zen estropadan ez ziren fin ibili Arkotekoak eta horregatik kezkatuta ikusi dugu Aginagako arraunlaria.

NOAUA! Laster hasiko da arraun denboraldia. Nola zaudete Arkotekoak?

Iñaki Errasti. Bi estropada jokatu ditugu asteburu honetan eta biak oso gaizki. Badakigu erdiko talde bat garela, baina gure asmoa zen ahal den aurrean ibiltzea. Baina ikusita azken estropadak, orain mantentzea da helburua. Neguko jaitsieratan ondo ibili ginen baina momentu honetan ez gaude egoera on batean. Pare bat arraunlari gelditi egon dira. Orain ari dira errekupeperatzen. Baina hala ere, plantila aldetik juxtu samar gabiltza. Bi aste barru hasiko da arraun denboraldia Galizan. Ea zer gertatzen den.

N. Eta zu nola zaudete?

I. E. Fisikoki oso ondo. Orain arteko denboraldi onenetakoa izango da. Baina arazoa ez da hori. Orain arte, aurrean ibili diren taldeetan aritu naiz. Aurrean ibiltzea ohituta nengoen, baina orain bestelakoak dira aspirazioak. Eta egia esan, nahikoa gogorra egiten da. Orain arte, erdialdetik genbiltzan, baina azken bi estropadatan ze maila eman dugun ikusita, etxera triste joan gara. Badakigu hori ez dela gure maila, gehiago egin daitekeela, baina errealitatea ikusita aurrekoekin ibiltzea momentuan oso zaila daukagu.

N. Nolatan joan zinen Arkotera?

I. E. Astilleron gorabeherak izan genituen. Nahiz pasa zena pasa, nik han jarraitzeko asmoa nuen. Presidente aldaketa bat eman behar zen baina denbora asko pasa zuten horretan. Urria zen eta ordurako talde guztiak osatuta izaten dira. Guk jakin beharra genuen



ORION ETA ASTILLERON IBILITAKOA DA IÑAKI ERRASTI. AURTEN ARKOTEREKIN JOKATUKO DU ACT LIGA.

ea non ibiliko ginen. Une horretan Arkoten (Plentzia, Bizkaia) tiratzeko aukera aterata zen. Arkoteko entrenadorea, Popi, lehen Astilleroako arraunlaria zen. Haren bidez aterata zen Arkotera joateko aukera.

Epaiaren zain

N. Astilleroako arraunlarien egoera nola dago? Epaiak ere izan dira tartean.

I. E. Pentsatzen dut epaia laster aterako dela. Orain guk kautelarra daukagu (behin behineko baimena). Astilleroak ordaindu zuen 6.000 euroko multa eta edozein tokitan daukagu arraun egitea.

N. Denboraldia lasai egiteko aukera izango al duzue?

I. E. Pentsatzen dut baietz. Baina horrelako gauzak pasa arte, lasai ez zaude.

N. Badakizue noiz emango den epaiaren berri?

I. E. Udarari. Baina gero errekurtsioak jartzeko aukera izango da. Dena den, espero dugu epai hau aldekoa izatea eta hori bukatzea dena.

N. Gustura zaudete Plentzian?

I. E. Oso ondo. Herri polita eta lasaia da. Klub bezala, organizazio

hobea dugu.

N. Astilleron baino lasaiago biziko zara. Polemika gutxiagorekin.

I. E. Asunto horrekin preokupazio berdinak dauzkate. Epaiak edo erabaki behar dutenek erabakiko dute. Bitartean, lanean segi.

N. Orain behintzat etxetik gertuago zaudete.

I. E. Bai, eta nabaritzen da bai. Dena oso ondo dago, baina kirol arloan preokupazio hori badugu.

N. Izan ere, zu beti onenen artean ibili zara.

I. E. Orion eta Astilleron beti helburua irabaztea da.

“San Pedroko usurbildarrak fuerte dabilta”

N. Bukatzeko, nola ikusi dituzu beste arraunlari usurbildarrak?

I. E. San Pedrokoak fuerte dabilta. Ligarik onenean daude eta maila ona ematen ari dira, gainera titularren artean dabilta bertakoak (Alex Udabe, Iñaki Portularrume, Berdaitz Larrarte eta konpainia).

Uztailaren 10a arte luzatuko da El Salvadorren aldeko kanpaina

Duela gutxi Jaikik El Salvadorrera hainbat material bidaltzeko abian jarritako kanpainak aurrera jarraitzen du. Ostegunean, ekainak 28, "Voces inocentes" filma Sutegin.

Arropa, jostailuak, eta eskola materiala dira bidali nahi dituzten gaiak. Bilketa lekuak, honakoak; Udarregiko erdiko aretoa eta NOAUA!ko egoitza, bulego orduetan.

El Salvadorren bizi duten egoera latza da. Are gehiago, okerrera egin dezake, adituek beste gerra batean atarian egon daitezkeela baitiote. Bertako komunitate bati bidali nahi diote laguntza.

"Voces inocentes",
ostegunean Sutegin
Azken orduan, hizlari batek etortze-



"VOCES INOCENTES" FILMA IKUSGAI
OSTEGUN HONETAN SUTEGIN,
20:00ETIK AURRERA.

rik izan ez zuenez, bertan behera geratu zen pasa den ekainaren 22ko ekitaldia. Baina Jaiki-tik, Ertamerikari eta El Salvadorri buruzko hitzaldia uztailaren egingo dela iragarri dute. Ostegun honetako, ekainaren 28ko ekitaldia ospatuko da. "Voces inocentes" filmaren emanaldia Sutegin 20:00etan hasita.

Argazki zaharrak bildu
nahi ditu Atxegaldeko
Jai Batzordeak

Etxean izaten diren eta erabiltzen ez diren etxe tresna zaharrak eta Atxegaldeko jaietako argazki zaharrak biltzen ari da Atxegaldeko Jai Batzordea. Uzteko prest zaudetenok deitu 635 205 734 zenbakira (Nagore) edota e-mail bat idatzi atxegaldekofestak@hotmail.com helbidera.

Udajolaseko begiraleen eta
gurasoen arteko bilera

Erainaren 28an osteguna, Udajolaseko begiraleek bilera egingo dute izena eman duten haurren gurasoekin. Bilera Udarregin izango da arratsaldeko 19:00etan. Informazio gehiago: 637 758 710.



Matrikulazio garaia

Lasarte-Usurbil BHI institutuan

Lasarte-Usurbil BHI ikastetxean 2007-2008 ikasturterako izena eman zutenentzat matrikula epea ireki da. Matrikula uztailaren 2tik 6ra egin beharko da institutuan bertan, eta nahi duenak beharrezko dokumentazioa eskuragarri izango du ikastetxeko idazkaritzan ekainaren 27tik aurrera.



Matrikulazio epea zabalik Usurbilgo Lanbide Eskolan

Usurbilgo Lanbide Eskolak matrikula epea zabaldu zuen ekainaren 1ean eta epe hori irekita izango da uztailaren 6ra bitarte.

Hau da Lanbide Eskolaren eskaintza: Administraritzak, Elektrizitate, Mekanika eta Mantenimenduko Goi zein Erdi


Mailako Heziketa Zikloak.

Aurten ere, eskaintza partzialan hainbat heziketa ziklo zein goi mailako heziketa zikloak egin ahal izateko Sarbide Ikastaroa eskainiko da.

Informazio gehiago nahi izanez gero deitu honako telefono zenbakira: 943 364 600.



Hitz-gezidunak !!

	Nafarroako mendatea	Aita-ama	Berandu egina	Seguru	Pozik
	Berotegi	Nahia	Kontsonantea	Bihi, ale	
	Lurralde		Gizon izena		
	Musika tresna		Geure		
* IRUDIAN	Labore mota				
Iruñeko pilotalekua	Arazo ez-tabaidatuak				
				Iodoa	
				Hiltzeko tresnak	
Daukate		Garaia			Lasaitasun
Palestinako hiria		Iparretarrak			
		Bokala	2. eta 5. bokalak	Rubidioa	
		Talde terrorista	Sexu eme	Ukatzeko	
Tiro eginez			Seta		
Maindirea, mihisea			Non atzizkia		
		Harri zapalak			
		Kontsonantea			
Huts edo akats bat duena				Suari dario	

* Usurbilgo Mendi Elkartearen izena zein da?


Soluzioa: 16. orrialdean.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Asko dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiazkoa da.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Usurbil Cup, azken txanpan

Larunbat honetan jokatuko dira Usurbil Cup 2007 areto futbol txapelketako azken partidak. Maiatzeko azken asteburuan hasi zen herriko pilotalekuan jokatu ohi den txapelketaren 4. edizioa eta hainbat partidaren ostean, Santixabel jaien atarian izango dira finalak. Benjamin, alebin eta infantil mailan txapeldunak nortzuk diren erabakiko da bertan.

Aurreko hiru edizioetan baino talde gehiago izan dira aurtengo Usurbil Cup txapelketan parte hartu dutenak. Maila desberdinetan banatuta 24 talde aritu dira azken asteetan areto futboleko herriko frontoian eta giro ezin hobea izan da parte-hartzaileen artean nahiz neurketa horiek ikustera gerturatu diren artean.

Eta horixe izan da hasiera hasieratik antolatzaileen helburua, garai batean bezala herriko hurrek frontoian futboleko jokatu ahal izatea eta bide batez, herri giroa sortzea. Azken finean herriko ia 200 neska-mutil izan dira protagonista nagusiak txapelketa honetan eta galdu edo irabazi, beraiek izan dira txalo zaparrada handienak bereganatu dituztenak.

Larunbat arratsaldean iritsi zain egongo dira finalera iritsi diren jokalariaik, baina antolatzaileen esanetan hori baino politagoa izan da haur eta gaztetxoek aste hauetan erakutsi duten ilusioa. "Izugarria da nola bizi duten txapelketa



24 TALDE IZAN DIRA TXAPELKETAN IZENA EMAN DUTENAK.

hau, batez ere txikienek. Batzuk eta besteak animatu, baloien bila joan, aktan golak apuntatu... denetik egiten dute, gustura gainera. Horrez gain, partida jokatzeko irrikitan egoten dira, nahiz eta partida hori galdu egingo duela aurretik jakin".

Eguraldi txarra dela eta neurketa batzuk atzeratu behar izan zituzten eta pasa den astean lau egun jarraian partidak jokatu ziren frontoian. "Beste txapelketetan normalean gertatzen ez diren pasarteak eman ohi dira Usurbil Cup-en. Lege bereziak jarri genituen partidak parekatu ahal izateko eta batzuetan lege-hauste nabarmenak izaten dira. Pasa den

osteguneko benjamin mailako neurketa batean, adibidez, 9 urte dituzten Borobiltxo taldeko 14 neskek 10 urteko 5 mutilen aurka jokatu zuten partidako azken minutuetan".

Hala ere, txapelketako talde onenak izango dira larunbateko finaletan. Benjamin, alebin eta infantil mailako partidak izango dira arratsaldeko 16.00etan hasita. Lerro hauek idazterakoan antolatzaileek ez zekiten nortzuk jokatu dituzten azken partida hauek, asteazkenean jokatzen baitzen azken jardunaldia.

JOSU ARANBERRI

Eskubaloi taldeak

Granollersen

Usurbil Kirol Elkarteko kadete mailako eskubaloi taldeak Granollers aldean dira bertako nazioarteko txapelketan parte hartzen. Azken urteetan bezala aurten ere herrialde desberdinetako taldeekin lehiatzeko aukera izango dute herriko jokalariek gazteek. Nesken taldeak, adibidez, Norvegiako 3 talde zituen hasierako ligaxkan. Mutilen taldeak, berriz, Norvegia eta Quebec-eko talde bana besteak beste. Txapelketa hau asteazkenean hasi zen eta igandean amaituko da.

Pilota txapelketako

finalak, astelehenean

Santixabel egunez, Usurbilgo XXXV. Pilota txapelketako finalak jokatu dira herriko pilotalekuan arratsaldeko 17.00etan hasita. Jubenil mailan, Zumarragako Kina eta Biainek Goizuetako Nabarte eta Eñaut Esnaolaren aurka jokatu dute. Nagusien mailan, berriz, Ojuel hernaniarrak eta Txapartegi asteazkenerak osatutako bikoteak Añorga Kirol Elkarteko Urmeneta eta Aranalde izango dituzte aurrez aurre. Jaialdi honetan 2 urdaiazpiko zozketatuko dira pilota laguntzaileen artean.

Usurbil laugarren

Paleta Goman

Unai Loidi eta Haritz Harreguyk laugarren postuarekin konformatu behar izan dute Aginagako Ariztitxo pilotalekuan jokatu den Gomazko paletako Gipuzkoako txapelketa herrikoian. Pasa den ostiralean jokatu ziren azken partidak eta usurbildarrek 30-28 galdu zuten Segurako ordezkariaren aurka hirugarren eta laugarren postuak zehazteko partidaren. Finalean, berriz, tolosarrak izan ziren nagusi Hernaniko bikoteari 30-21 irabazi ostean.

Eguneko goardiako farmaziak

Ekainak 28, osteguna
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Ekainak 29, ostirala
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Ekainak 30, larunbata
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Uztailak 1, igandea
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Uztailak 2, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 3, asteartea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 4, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 5, osteguna
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 6, ostirala
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 7, larunbata
Gil, Nagusia 24 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Uztailak 8, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

J. Etxebeeste Farmazia
Elkano 2 kalea, Hernani. 943 552087
(gauko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

KzGunea, uztailean, arratsaldez irekita

Uztailean, arratsaldez irekiko
dira KzGunearen atea.
Lehenengo hamabostaldian honako
ordutegian: 16:00etatik 20:00etara.
Bigarren hamabostaldian honako
ordutegian: 14:00etatik 18:00etara.
Telefonoa: 943 36 14 12.



Soluzioa: Andatza

ORDUTEGIA Tren								ORDUTEGIA Tren							
Donostia AMARA	Donostia LUGARITZ	Donostia ANORGA	Donostia ERREKALDE	USURBIL	Orio AIA	Zarautz SAN PELAIO	ZARAUTZ	ZARAUTZ	Zarautz SAN PELAIO	Orio AIA	USURBIL	Donostia ERREKALDE	Donostia ANORGA	Donostia LUGARITZ	Donostia AMARA
05.47	05.50	05.52	05.55	06.03	06.14	06.19	06.20	06.08	06.09	06.15	06.24	06.30	06.33	06.36	06.39
06.17	06.20	06.22	06.25	06.33	06.44	06.49	06.50	07.08	07.09	07.15	07.24	07.30	07.33	07.36	07.39
06.47	06.50	06.52	06.55	07.03	07.14	07.19	07.20	07.38	07.39	07.45	07.54	08.00	08.03	08.06	08.09
07.17	07.20	07.22	07.25	07.33	07.44	07.49	07.50	08.08	08.09	08.15	08.24	08.30	08.33	08.36	08.39
07.47	07.50	07.52	07.55	08.03	08.14	08.19	08.20	08.38	08.39	08.45	08.54	09.00	09.03	09.06	09.09
08.17	08.20	08.22	08.25	08.33	08.44	08.49	08.50	09.08	09.09	09.15	09.24	09.30	09.33	09.36	09.39
08.47	08.50	08.52	08.55	09.03	09.14	09.19	09.20	10.08	10.09	10.15	10.24	10.30	10.33	10.36	10.39
09.47	09.50	09.52	09.55	10.03	10.14	10.19	10.20	11.08	11.09	11.15	11.24	11.30	11.33	11.36	11.39
10.47	10.50	10.52	10.55	11.03	11.14	11.19	11.22	12.08	12.09	12.15	12.24	12.30	12.33	12.36	12.39
11.47	11.50	11.52	11.55	12.03	12.14	12.19	12.20	13.08	13.09	13.15	13.24	13.30	13.33	13.36	13.39
12.47	12.50	12.52	12.55	13.03	13.14	13.19	13.20	14.08	14.09	14.15	14.24	14.30	14.33	14.36	14.39
13.47	13.50	13.52	13.55	14.03	14.14	14.19	14.20	15.08	15.09	15.15	15.24	15.30	15.33	15.36	15.39
14.47	14.50	14.52	14.55	15.03	15.14	15.19	15.20	16.08	16.09	16.15	16.24	16.30	16.33	16.36	16.39
15.47	15.50	15.52	15.55	16.03	16.14	16.19	16.20	17.08	17.09	17.15	17.24	17.30	17.33	17.36	17.39
16.47	16.50	16.52	16.55	17.03	17.14	17.19	17.20	18.08	18.09	18.15	18.24	18.30	18.33	18.36	18.39
17.47	17.50	17.52	17.55	18.03	18.14	18.19	18.20	19.08	19.09	19.15	19.24	19.30	19.33	19.36	19.39
18.47	18.50	18.52	18.55	19.03	19.14	19.19	19.20	20.08	20.09	20.15	20.24	20.30	20.33	20.36	20.39
19.47	19.50	19.52	19.55	20.03	20.14	20.19	20.20	21.08	21.09	21.15	21.24	21.30	21.33	21.36	21.39
20.47	20.50	20.52	20.55	21.03	21.14	21.19	21.20	22.08	22.09	22.15	22.24	22.30	22.33	22.36	22.39
21.47	21.50	21.52	21.55	22.03	22.14	22.19	22.20	23.00	23.01	23.07	23.16	23.22	23.25	23.28	23.31

00.00 Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenerik Igandera eta JAETAN 00.00 Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenerik Igandera eta JAETAN

Agenda !!

Ekainak 30, larunbata
 16:00 IV. Areto Futbol txapelketako finalak herriko Frontoian.
 22:00 Maskota igotzea eta antzerkia.

Uztailak 1, igandea
 09:00 IV. Ur bataioa Oiardo Kiroldegian.

12:30 Txupinazoa Udaletxean Amador Granadoren eskutik. Ondoren, Haurren danborrada. Aldi berean, Artzabalgo txosnen irekiera trikipoteoarekin.

15:30 XI. Mus Txapelketa Askatasuna Plazan.

16:00 Futbol 3 Txapelketaren hasiera Artzabalen (Izen emateko egunean bertan).

18:00 Buruhandiak.

19:00 Txoznen irekiera Askatasuna Plazan.

19:30-22:30 Helduen danborrada.

21:30 Herri azeria Askatasuna Plazan.

22:30 Antzerkia Frontoian: "Lapur-zuloa" komedia. Ondoren, DJ Larra Artzabalen.

02:00 Platano dantza Askatasuna Plazan.

Musikaren txokoa !!



"Hari Biru", Maddi Oihenart

Bere izen soilaz sinatzen duen lehen disko dugu honakoa. Zuberoako doinuak ekarri nahi dizkigu gogora Maddik, bere ahots ederraren bidez eta Juantxo Zeberio piano-jole eta ekoizlearen laguntzaz.



Maddik beste inork ez bezala adierazi du Zuberoako abesteko modua. Izan ere, Maddi Oihenarten kantatzeko modua ez da genero eta estilo arauetara mugatzen: "a capella" moduan abesten du eta konpasa haizeak markatzen dio. Erritmoa, naturatik, sentimenduetatik, eta bere senatik hartzen du Maddik. Maddi

Oihenartek Zuberoako musika erakutsi diguten hainbat eta hainbat diskoetan hartu du parte. Baina bere kezka haratago doa. "Ilhargi Min" diskoan (Maddi Oihenart eta Josetxo Goia-Arriben, 2003), aurrerapauso bat eman zuen bere sustraia ahaztu gabe eta jazz hizkuntzan murgildu zen, oso urrutiegi gertzen ez zaion mundua.

Bide baten hasiera izan zen, eta orain proposamen pertsonalago eta ausartago bat egin nahi digu. Maddi Oihenart, inoiz baino askeago, instrumentu garaikideez inguratu da bere mundua ezagutu dezagun. Bere mundu hori, barea da, zinezkoa, poesiaz eta folk berrituaz bete.

ORDUTEGIA Autobus Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

	DONOSTIA	URBIL	USURBIL	ZARAUTZ	ZARAUTZ	USURBIL	URBIL	DONOSTIA
DONOSTIA - ZARAUTZ	07:40	>>	08:05	08:25	08:45	07:05	>>	07:30
	08:10	>>	08:35		08:15	07:35	>>	08:00
	08:40	>>	09:05	09:25	08:45	08:05	>>	08:30
	09:10	09:30	09:35		08:55	08:35	>>	09:00
	09:40	>>	10:05	10:25	09:05	09:05	>>	09:30
	10:10	>>	11:05	11:25		09:40	09:45	10:10
	11:40	>>	12:05	12:25	09:45	10:05	>>	10:30
	12:10	12:30	12:35		10:40	10:45	>>	11:10
	12:40	>>	13:05	13:25	10:45	11:05	>>	11:30
	13:10	13:30	13:35		11:45	12:05	>>	12:30
	13:40	>>	14:05	14:25	12:45	13:05	>>	13:30
	14:10	14:30	14:35		13:40	13:45	>>	14:10
	14:40	>>	15:05	15:25	13:45	14:05	>>	14:30
	15:10	15:30	15:35		14:40	14:45	>>	15:10
	15:40	>>	16:05	16:25	14:45	15:05	>>	15:30
	16:10	>>	17:05	17:25	15:40	15:45	>>	16:10
	17:40	>>	18:05	18:25	16:45	16:05	>>	16:30
	18:10	18:30	18:35		16:40	16:45	>>	17:10
	18:40	>>	19:05	19:25	16:45	17:05	>>	17:30
	19:10	19:30	19:35		17:45	18:05	>>	18:30
	19:40	>>	20:05	20:25	18:45	18:05	>>	18:30
	20:15	20:35	20:40	21:00	19:40	19:45	>>	20:10
	21:00	21:20	21:25	21:45	19:45	20:05	>>	20:30
	22:15	22:35	22:40	23:05	20:45	21:05	>>	21:30
					21:45	21:45	>>	22:00

00:00 Aiaro jarraitze du, 00:00 Aititik dator

ORDUTEGIA Autobus Larunbat, Igande eta JAIEGUNETAN

	DONOSTIA	URBIL	USURBIL	ZARAUTZ	ZARAUTZ	USURBIL	URBIL	DONOSTIA
DONOSTIA - ZARAUTZ	08:00	08:20	08:25	08:45	08:45	07:05	07:10	07:30
	09:00	09:20	09:25	09:45	07:45	08:05	08:15	08:40
	10:00	10:20	10:25	10:45	08:45	09:05	09:15	09:40
	11:00	11:20	11:25	11:45	09:45	10:05	10:15	10:40
	12:00	12:20	12:25	12:45	10:45	11:05	11:15	11:40
	13:00	13:20	13:25	13:45	11:45	12:05	12:15	12:40
	14:00	14:20	14:25	14:45	12:45	13:05	13:15	13:40
	15:00	15:20	15:25	15:45	13:45	14:05	14:15	14:40
	16:00	16:20	16:25	16:45	14:45	15:05	15:15	15:40
	17:00	17:20	17:25	17:45	15:45	16:05	16:15	16:40
	18:00	18:20	18:25	18:45	16:45	17:05	17:15	17:40
	19:00	19:20	19:25	19:45	17:45	18:05	18:15	18:40
	20:00	20:20	20:25	20:45	18:45	19:05	19:15	19:40
	21:00	21:20	21:25	21:45	19:45	20:05	20:15	20:40
	22:00	22:20	22:25	22:45	20:45	21:05	21:15	21:30
	22:30	22:50	22:55	23:15	21:45	21:05	21:15	21:40
NEGOKO LANUNBAT GALETAY								
	00:00	>>	00:25	00:45	23:15	23:35	>>	00:00
	02:00	>>	02:25	02:45	01:15	01:35	>>	02:00
	04:00	>>	04:25	04:45	03:15	03:35	>>	04:00
	06:00	>>	06:25	06:45	05:15	05:35	>>	06:00

00:00 larunbat kontingentziaren bakanik.

ETXEBIZITZA

- Gela bat alokatzen da, pisu konpartituan. Kontaktuan jartzeko: 635 208 551.
- Usurbilen pisu bat alokatu nahi dut. Presazkoa da. Deitu telefono honetara: 627285904.
- Bizkarre kalean pisua salgai: 2 komun, sukaldea, sala, 3 gela, ganbara eta gara-jea. 48.000.000 pta. Interesatuak deitu 650938489 telefonora.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea traste-roarekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usurbilen. Tf: 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.

LANPOSTUAKLan-eskaintzak

- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. Irailetik aurrera hasteko. 627278907.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 362713.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabiltza. Interesatuak deitu 943366710.

Lan-eskaerak

- Fisika ikaslea, uda honetan matematika eta fisikako klaseak emateko prest. Interesatuak deitu zenbaki hauetako batera: 943 37 12 77 / 685 772 602

(Nerea).

- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Arratsaldetan lan egiteko mutil bat eskaintzen da. 664 774 024.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Fisikako ikaslea uda honetan matematika eta fisikako klaseak emateko prest. Interesatuak deitu zenbaki hauetako batera: 943 37 12 77 / 685 772 602.
- Inork etxean alfer-alferrik telebista txiki bat edukiko balu, gustora berrerabiliko genuke Udarregi ikastolan. Bide batez, zaharkitutako vhs bideo reproduktorea ere hautsak jaten ari badizu, guk etekina aterako genioke ikastolan. Telefono

zenbakia: 943 361216.

- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa jasotzen ari dena. 626 220925.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Salgai bixkientzako aulki bat, Red Castle markakoa, osagarri guztiekin: burbuja, zakua... 943 36 07 54 (Ana).
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- "Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco" Auñamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. Telefono zenbakia: 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tinta-tuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birrikariak, dena hornitua, ASR... Tf: 610431999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere: Tf: 664 774 024.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna salgai. 676 453 176.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617 242 660/ apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Oharra

Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, honako telefono zenbakira deitu bulego orduetan: 943 360 321. E-maila: erredakzioa@noaua.com

JAIOTZAK

- Libe Mugabure Gonzalez, ekainaren 18an.



kutxa

zer nahi duzu bihar?

USURBIL AUTOAK

Zerbitzu
Ofiziala



Ondo pasa
Santixabeletan!



KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA
Km.0 kotxeak eta selection

Tel: 943 361 079
Fax: 943 366 292
Altzezarra kalea, 1
Zumartegi industrialdes

Usurbildar guztiok
gure-gureak diren jaiak
alaitasunean goza ditzagula.
Agur berezia bertan
egon ezin duzuen herritarroi,
presoei eta iheslariei.
Gora Santixabelak !!



EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA



Osurkilgo Udala